URDAIBAI

BIOSFERAREN ERRESERBA



URDAIBAI
Biosferaren Erreserba

Azalera osoa: 230 Km²

Kokapena GPS:
43º18´47,49´´ N2º 40´45,96´´ W (Gernika-Lumo)

Bilbotik:

· **Errepidez:**
N-634 / A-8 Amorebieta-Etxanora / BI-635 Gernika-Lumora (Autzagane).

BI-631 Bermeo (Sollube), Mungia-Bermeo.

· **Garraio publikoz:**
Euskotren / Bizkaibus.



Azaleko argazkia SRB Urdaibai EJ-GV

Debekatuta dago aurretiaz URREMENDIren baimenik gabe lan honen edukiak osorik edo zati batean erabiltzea.

© URREMENDI

Aurkibidea

KOKAPENA	02
URDAIBAI	04
BUSTURIALDEA-URDAIBAIKO HERRIAK	06
EZINBESTEKO 10AK	10
URDAIBAI EZAGUTZEKO 6 IBILBIDE	12
TURISMO AKTIBOA ETA NATURA TURISMOA	18
SURFING UR ETA KIROL JARDUERAK	20
GASTRONOMIA ETA ENOTURISMOA	22
JARDUERA ENOTURISTIKOAK	24
ESPERIENTZIA ENOGASTRONOMIKOAK. KONSERBERAK	26
URDAIBAIKO MAPA TURISTIKOA	28
HEGAZTIEN BEHAKETA-BIRDING	30
BEGIRATOKIAK. BIOSFERAREN IBILBIDEA	32
KULTURA ETA ONDAREA	34
HISTORIA, KULTURA ETA PAISAIA ESPERIENTZIAK	36
SANTIAGO BIDEA.JAIAK ETA EKIMEN KULTURALAK	38
NON JAN	40
OSTATUAK	44
BESTE AISIALDI EMPRESA BATZUK	50
URDAIBAIKO PRODUKTU ETA OROIGARRIAK	52
TELEFONO ZENBAKI BALIAGARRIAK	54

Urdaibai

Busturialdea-Urdaibai turismora zabaltzen da. Gure ingurumena ezagutzeko jendearen ardura eta ekimenak eta lurraldeko baliabideei balorea emateko bertako biztanle eta erakundeen erronkak, geure ondare natural eta kulturalarekiko kontzientzia sorrarazten digu. Gainera, inguruaren edertasuna ohikotasunaren osagarria da.

Gernikako arbola, Oka ibaiaren estuarioa Mundakako olatua aurrean duela, G**aztelugatxeko San Juan, artadi kantauriarrak, Gernika Jai Alai, Ibarrangeluko San Andres elizaren egurrezko ganga polikromatua, Urdaibai Bird Center edo Matxitxakoko hegaztien** behatokiak dira besteak beste Urdaibaiko Biosfera Erreserbak eta Busturialdeak eskaintzen dituzten baliabideak.

Paisaia gizatiartzen duten herri txiki eta bitxiekin batera, Urdaibai aparteko egiten duten txataltxoak dira. Nazioartean ezaguna izatea, bestelako kultura, ohitura, zapore eta paisaiak ezagutzeko grina duen turistarentzat garrantzitsua da.

Gida honek egonaldia planifikatzeko behar den guztia eskaintzen du: baliabideak, herriak, museoak, jatetxeak, ostatuak, zerbitzu turistikoak eta aisialdi aktiborako zerbitzuak, eta seguruenik, Urdaibai ezagutzea bizipen ahaztezina izatea lortuko du

ekoetxea
Urdaibai

Busturialdea-Urdaibaiko
Herriak

1

AJANGIZ

Nekazal herria, Oka bailararen gaineko talaia naturala da.
Ondare kulturalean, Asentzio eliza neoklasikoa eta Auzokoa baserria (XIX.m) eta Kanpantxuko Mentzeta dorretxea aipa genitzake.

www.ajangiz.eus

ARRATZU



2

Erromesen pasabidea; ondare historiko handia du. Santo Tomas eliza ikaragarria eta Arrolako gotorlekua nabarmentzen dira, Burdin Aroko gotorleku indigena da (IV.K.a.-I K.o.) eta Arrolagune Interpretazio Zentroan dago birsortua.

www.arratzu.com

3

BERMEO

Itsas herri hau XIII.mendean Bizkaiko hiriburua izan zen. Alde zaharrari Erdi Aroko usaina dario. (XVI.mendea). Arrantzaleen Museoa den Ertzilla Dorrea eta Gaztelugatxeko San Juan harkaitza ezinbesteko erreferentziak dira.

www.bermeo.eus

BUSTURIA

4

Paduraren eta artadi kantauriarraren artean dago, Urdabaiko Biosfera Erreserbaren bihotz-bihotzean. Aberastasun naturalari ondarea erantsi behar zaio, batez ere, Axpeko Andra Mari Jasokundearen eliza (XIV.mendea), Errege galtzada eta Txirapozu jauregia. Ekoetxea Urdaibaien, Madariaga Dorretxean, Euskadiko Biodibertsitate Zentroa dago.

www.busturia.org

5

EA

Errekak zeharkatzen du hirigunea, zubiak lagun dituela eta portura eta hondartza txiki batera garamatza. Historikoki ura zuen bizibide eta aipatzekoak dira Urtubiagako burdinola eta Ogellako Marearteko zabalgunea.

www.eakoudala.net

6

ELANTXOBE

Ogoñoren mendi-mazelan, portu gainean, arrantzale herri honek, gaur egun aisialdi-portu bilakatu den arren, jakin du bere izaera gordetzen.
Bariko San Nicolas eliza (XIX.mendea) eta eraikin neoklasikoak bereizten dira, Udaletxea kasu.

www.elantxobe.eu

EREÑO

7

Ereñozarreko San Migelen magalean, benetako talaia naturala da. Erdi Aroko gaztelu bat izan zen bertan. Erdiguneko etxeak, erromatar harginek ere ustiatzen zuten bertako harri gorriz eginak dira. Nabarmentzekoa da San Migel eliza ikaragarria (XV.mendea).

ww.ereno.org

8

ERRIGOITI

Nekazaria eta laboraria, bere ondare erlijiosoak iragan mistikoa eta kondairak gogorarazten dizkigu. Idibaltzagako Andra Mari eliza eta San Antonioko guruztoki barrokoa bereizten dira.

www.errigoiti.net

FORUA

9

Erromatar herrixkan eta Tourseko San Martin elizaren azpian eskualdeko ondare historiko gehiena gordetzen da. Ezin dugu ahaztu bere landa eremuaren xarma eta padura barruko ibilbideak.

www.forua.net



10

GAUTEGIZ ARTEAGA

Errota eta burdinolen historia xarmagarria bihurtzen da Napoleon III. ak paduraren ondoan bere emazteari, Eugenia de Montijori, gaztelua eraikitzen dionean. Urdaibai Bird Center zentrutik hurbil dago. Hau hegazti migratzaileak behatu, hedatu eta ikertzeko naturaren museo bizia da.

www.gautegizarteaga.com

GERNIKA-LUMO

Euskaldunon eskubide eta askatasunaren sustraiak Gernikako Arbola ezagunean daude. Bere azpian foruak zin egiten ziren eta egun, Lehendakariak karguaren zina egiten du. Aipatzekoak dira Bakearen Museoa, Euskal Herria Museoa, Europako herrien parkea eta astelehenetako azoka.

www.gernika-lumo.net



IBARRANGELU

Altxor ugari ditu; Atxarreko San Pedrotik dagoen Urdaibaren panoramika, San Andres elizaren XVI.mendeko egurrezko galga polikromatua eta Laga eta Laida hondartza ezagunak, besteak beste.

www.ibarrangelu.eus

KORTEZUBI



Oma bailaran dago padurara besoak zabalik dituela. “Baso Margotua” dago bertan. Bien artean Santimamiñeko koba dugu, Historiaurreko ondarea, UNESCOk gizon-emakume guztien ondare izendatua.

www.kortezubi.eus



MENDATA

Santiago bidean, mendien artean dago. Montalban Dorrea (XVI.mendea), San Migel Goiaingeruaren eliza, gotiko-errenazentista, eta San Juan eta San Lorentzoren baseliza bereizten dira.

www.mendata.eus

MORGA

Santiago bidean bertan, mendigunean, barne eremuko paisaia bukolikoa eskaintzen digu. Gune historikoak ditu, esaterako Meakaur, San Martin eliza errenazentista eta guruztokiarekin. Andra Marin Zorroza Jauregia dago (XVIII. mendea).

www.morga.eus

16

MUNDAKA

Itsasadarraren bokalean, talaiatik Andra Mari eliza buru dela, portuaren lilura, Santa Katalina baselizaren edertasuna eta hurrean olatuei aurre egiten dien surfisten joan-etorriak antzematen dira. Itsasaldeko elizate honek arrantza izaera eta nekazal kultura gorde eta ohiturak jagon ditu.

www.mundaka.org

MURUETA

17

Paduraren ertzean, industria iraganaren lekuko isila, antzinako teileriaren kebidea dago. Bertan lehenagoko nasa, gaur berritua, eta Maiukitza errota daude. Herriaren erdi-erdian Andra Mari eliza (XIX.mendea).

www.murueta.es

18

MUXIKA

Nekazal herria da, eskualdeko zabalena (50km2). Ezkutuko auzoetan baserriak ondo kontserbatzen dira eta ondare ederra gordetzen dute: Muxikako Dorretxea, San Roman baseliza eta San Pedro eta San Pabloren baseliza gotikoa, besteak beste.

www.muxikakoudala.eus

NABARNIZ

19

Iluntzar mendiaren barrenean, paisaia ikusgarriak eskaintzen ditu, xendazaletasuna, mendi-ibilbideak, eta gastronomia aparta ere bai. Balore historiko handiko baserriak ditu. Elizako ondareari dagokionez, Gorostizako Andra Mari eliza edo Lekerikako Santiago apostoluaren baseliza bereizten dira.

www.nabarniz.eus

20

SUKARRIETA

Udan bertara joateko usadioak aparteko izaera eman dio. Txatxarramendi irla, lorategi botanikoa da, landaretza itxiaren xarmak eta bidearen amaieran, itsasoaren gain-gainean dagoen begiratokiak txunditu egiten du bisitaria.

www.sukarrieta-pedernales.com

10 Ezinbesteko ak

2 MUNDAKA ETA EZKERREKO OLATUA

Surfaren nazioarteko eredu, itsas grina mantentzen du eta bere portu txikiaren inguruan erdigune alaia.

3 BATZAR ETXEA ETA GERNIKAKO ARBOLA

Bizkaiko Parlamentua izan da Erdi Arotik eta euskaldunen eskubide eta askatasunen ikur.

5 BERMEOKO PORTUA ETA ALDE ZAHARRA

Kantauri Isurialdeko baxura arrantza portu nagusia. Alde Zaharreko zokondo bakoitzari itsas izaera dario.

7 URDAIBAI BIRD CENTER

Paduran bertan, Urdaibai Biosfera Erreserbaren bihotzean, Gautegiz Arteagan kokatutako hegaztien behatoki aparta.

1 GAZTELUGATXEKO SAN JUAN

Mitoak, kondairak eta usadioak gordetzen ditu mirari natural honek (biotopo babestua). • Informazio gehiago: www.bizibermeo.eus • Erreserbak: www.bizkaia.eus/gaztelugatxe

"Land-Art"a Omako bailara izkutuan, historiaurreko aztarnategiaren oinaldean, UNESCOK gizon emakume guztien Ondare izendatuan.

4 OMAKO BASOA ETA SANTIMAMIÑE KOBA

6 EKOETXEA URDAIBAI

XV.mendeko dorretxe honetan Biodibertsitate Zentroa dago, ondare naturala ezagutu eta gozatzeko. Bertatik paduraren ikuspegia ezin hobea da.

10 EA

Lehen begiradan erakartzen gaitu bere edertasunak, itsasoak eta landak. Herrigunea bitxia da, zokondo miresgarriak ditu eta bere ondare historiko eta naturala ezagutzekoak dira.

8 LAIDA ETA LAGA HONDARTZAK

IBARRANGELU

Surf eta kitesurfa praktikatzeko euskal itsasaldeko hondartza nagusiak. Ibilaldi ederrak egin genitzake eta hareatza hauen biodibertsitatea ezagutu.

9 ELANTXOBE

Jatorra eta bitxia, Ogoño mendiaren ekialdeko hegalean eskegiten da herrigunea, portuaren gainean, kale estu eta aldapatsuekin.

Urdaibai ezagutzeko 6 ibilbide

Historia, natura eta bertako kultura izango dira ibilbide hauen ardatza Busturialdea-Urdaibaiko garrantzitsuena ezagutzeko.

1 ERREGEEN BIDEA

Gernika-Bermeo itsasaldetik doa, Gernikako Arbolan bizkaitarren legeak zin egiten zituzten antzinako jaunek zeharkatu zituzten bideetatik.

Gernika-Lumotik, ateratzen da, Gernikako Arbola, Euskal Herriaren eskubide eta askatasunen ikurra dena, Gernika Jai Alai frontoia, zesta-puntaren katedrala, eta Andra Mari eliza gotiko errenazentista ezagutzeko.

Forun, erromatar herrixka eta Tourseko San Martin eliza (XVII. mendea) ezagutzea ezinbestekoa da eskualdearen historia ezagutzeko.

Marisman murgilduz, **Muruetan,** teileria zaharra da arkeologiaren aztarna. Busturian benetako Errege-galtzada zapalduko dugu, lehenagoko txakolin-parrak inguruan dituela eta Madariaga Dorretxeak hurbilduko gaitu biodibertsitatera.

Sukarrietan, Portuondoko ainguratoki erromatarraren historia ezagutuko dugu, Txatxarramendi irlako parke botanikoaz eta ikuspegi ederrez gozatu eta San Antonio hondartzan atseden hartuko dugu.

Mundakan talaiatik Urdaibaiko estuarioren bista ikaragarriak izango ditugu eta Santa Katalina baselizatik itsas zabalarenak.

Ibilbidea **Bermeon** amaitzen da. Arrantzaleen Museoak, San Frantzisko komentuaren klaustro gotikoak (1357) eta Santa Eufemia elizak (XVI. mendea) kontatuko digute bere historia. Gaztelugatxeko San Juan haitza bisitatzea ezinbestekoa da.

2 ARTADIAREN EREMUA

Urdaibaiko estuarioaren eskuinaldeko herri txikien inguruan artadiaren edertasuna paregabea da.

Kortezubin Santimamiñeko kobak historiaurrean murgiltzen gaitu. Oman bailararen isiltasuna mintzatzen da eta Baso Margotua sorgintzen du. Basondon babesten dira basabere mehatxatuak.

Gautegiz Arteagan, San Lorentzo baseliza (XVI. mendea) eta gaztelua ikusiko ditugu. Azken hau, Urdaibai Bird Centerretik behatzen dituzten hegazti migratzaileak indarberritzen diren paisaian altzatzen da.

Ibarrangelu dibertsitatearen eredua da: ofitak eta Laga eta Laidako dunak inguratzen dituen artadiren arteko aldea nabaria da. Zeharkatuz gero, Atxarreko San Pedroko begiratokitik Urdaibaiko estuarioaren ikuspegi paregabea izango dugu eta behin herriaren erdigunean, San Andres elizako bisita gidatuan ikusiko dugun gangak harrituko gaitu.

Elantxobe, era bertikalean eraikia, itsasoaz jolasten da bere portu txikian. Paisaiak eta xarmak bat egiten duten herri honetan aipagarriak dira bere eraikin neoklasikoak (XIX. mendea).

Ean, errekak aparteko hirigunea zeharkatzen du zubiak lagun dituela. Natxitua eta Bedarona auzo nekazarien eta harkaitzezko senaia lasaien kontrapuntua da; Ogellakoa balio ekologiko handikoa da.





3 GOLAKO IBAIAREN IBILBIDEA

Barrualdeko herriak igarotzen ditu, Golako ibaiaren alde bietako herri nekazariak.

Ajangizen hasten da, Gernika-Lumo ibarraren begiratoki naturalean. Igokundearen elizaren handitasuna nabarmentzen da (XIX.mendea).

Mendatan, Montalban dorretxea (XVI. mendea) Euskal herrian oin pentagonala duen bakarra eta San Migel eliza (XVI.mendea) dira nagusi. Marmiz auzoan Olazarra burdinola eta errotaren arrastoek, gizakiaren eta lurraren arteko lotura sendoa gogorarazten digute.

Arratzu Erdi Arotik hona itsasaldeko Santiago bideko pasabidea dugu, antzina gainera, Artzubi zubi erromaniko ederretik. Santo Tomas elizak Bizkaiko koru barroko garantzitsuenetako bat du. Loiola auzoan Arrolagune, Arrolako *Oppidum-eko* Interpretazio Zentroa dago, II. Burdin Aroko aztarnategi arkeologikoarena, hain zuzen.

4 ERDI AROKO IBILBIDEA

Muxikan bertan egiten da ibilbide historikoa, ondare historiko-kulturalez beteriko auzo sakabanatuetan zehar.

San Roman auzoan dago **Muxikako** Dorretxea (XVI. mendea) bandoen arteko gerra amaituta, landa jauregi bihurtu zena. San Roman baseliza landa arkitektura erlijiosoaren eredu ederra dugu.

Ibarruririantz hartuta, Etxezarreta jauregia, Olabarri errota eta San Pedro eta San Pabloren baseliza gotikoa (XV-XVI. mendeak) ikusiko ditugu. Atzean, Erdi Aroan oinarritutako Andra Mari eliza eta gurutzbide barrokoa daude. Aurrerago, Ormaza jauregi barrokoa eta Ibarruriko ferratokia. Unda auzoan Erdi Aro amaierako baserrien arkitektura ederraz gozatuko dugu.

Magunas auzoan, nekazal auzoa, San Lorentzo baseliza bereizten da, barrokoa eta egurrezko korua duena.

Hurrean dago Bizkaiko balkoia (Mendata), begiratoki aparta Urdaibai Biosfera Erreserbaren barnea begiztatzeko.



5 BASERRIAK ETA HILARRIAK

Benetako bitxi natural eta kulturalak gordetzen dituzten herri eta auzoetako usadio eta ohituren zehar egiten den ibilbidea.

Muxikatik irteten da, San Vicente elizatik, bere hegoaldeko aldean dituen errromatar garaiko erlaitzak interes handikoak dira.

Morgarantz, Gerekiz muinoan, San Esteban eliza prerromanikoa eta bere erromatarren garaiko bi hilarri (II eta IV. mendeak) garrantzitsuak ikusiko ditugu. Andra Marira helduta, Zorroza jauregia (XVIII. mendea) arku bikoitzeko arkupea duena, bertako baserri askoren aitzindari eta eredu izan da. Meakaur auzoan, San Martin eliza errenazentista, garaipen-arku moduko atari manierista duena ikustea eskertuko dugu. Aurrean Kristo Gurutzatuaren baseliza dago, 1766koa da nahiz eta 1515ean eraiki zen.

Ibilbidea **Errigoitin** amaitzen da. Metxikas eta Zallobante auzoan, familientzako aisialdigune baten ondoan, San Lorentzo eliza neoklasikoa dago. Elexalden, Idibaltzagako Andra Mari eliza handia dugu. Bere aurrean San Antonioren guruztokia, eskualdeko burdin lanik onenetarikoa. Bizkaigane mendira igo eta paisaia ederraz gozatuko dugu.

6 HISTORIAURREKO HARANETATIK URDAIBAIKO GAILURRETARA

Historiak eta naturak bat egiten dute ibilaldi sakon eta erakargarri honetan.

Santimamiñe barrenean, **Kortezubin,** Oma bailaran isiltasuna da nagusi paisaia idiliko eta berdean; baserriek euren gailurrak erakusten dizkigute eta Bolunzulo eta Olakoerrota errotek merezitako atsedena hartzen dute.

Nabarniz, Urdaibaiko herririk garaiena dugu, Gorritiz-Gorostizagako Andra Mari eliza dugu bertan. Hemendik Illuntzar tontorrera joan gaitezke eta Urdaibai eta Lea-Artibairen ikuspegi borobil ederraz gozatu.

Ikazurieta auzoan bizirik dirau Ikazuriaga baserriak, 500 urtetik gorakoa da eta aritz egurrezko egitura mardul eta ikaragarria du. Lekerika auzoan Aldekoa baserriak (XVIII. mendea) barrura sartutako aurrealdea du solairu bat edo bi balkoi korritu sartzeko, ezaugarri hau hemengo bailarako baserrietan baino ez da agertzen, armarria ere badu eta arkupeko sarbidean kapitel jonikodun zutabea. Arrola mendiranzko igoeran II.Burdin Aroko herrixka gotortua ikusiko dugu, egun ikerketa arkeologikoan dagoena.

Ereño, K.a.I .mendean ere erromatarrek ustiatzen zituzten bere harrobietako harri gorriek egiten dute ezagun. Garaia eta harrobietako harri gorriz eraikitako San Migel eliza, erdiguneko zenbait etxe bezala, nabarmentzen dira. Ezinbestekoa da Ereñozarreko San Migelera igotea eta bertatik Durangalde, Gorbeia, Mundakako itsasadar eta itsasoaren beraren ikuspegiaz gozatzea. Gailurrean burututako indusketa arkeologikoek agerian utzi dituzte nekropoli batzuk eta Erdi Aroko gaztelu bat.

Informazio gehiago Urremendin eta Eskualdeko Turismo bulegoetan.

Turismo Aktiboa eta Natura turismoa

Xendazaletasuna

Busturialdea-Urdaibaiko ibilbideen sareak balore kultural, paisajistiko eta etnografiko handiko altxorrak gordetzen ditu.

Baseliza miresgarriek, baserri ikaragarriek, izkutuko zokondoek eta paisaia naturalak harrituko dute ibiltaria pauso bakoitzean.so.

Informazio gehiago eskualdeko turismo bulegoetan eskatu edota ibilbideak deskargatu eta ibilbideen sarea kontsultatu hemen:
www.turismourdaibai.com

Nordic Walking: Nordic Walking ibilbideak daude, gaitasun maila desberdinentzako egokituta.
http://www.nordicwalkinggunea.net/La-Red-de-Centros-NW/nw-bermeo

Urdaibaitik zehar bisita gidatuak bizikleta elektrikoan. Bizikleten alokairua.

Basati Bike
Goikoibarra 15, Gernika Lumo
Tel.: 94 465 38 39
basatibike@basatibike.com
www.basatibike.com

Geoturismo

15 ibilbide, 28 panel

Urdaibaiko Biosfera Erreserba,
250 milioi urte dituen liburu geologikoa.

Informazio gehiago:
http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/libro/guia-lugares-interes-geologico/r49-12872/es/

Surfing

Surfak tradizio handia du Busturialdea-Urdaibaien. Laga eta Laida hondartzetan eta batez ere Mundakako barran, nazioarteko surfisten gunea eta mundu guztian ezaguna den ezkerreko olatuaren sorlekuan, bete-betean gozatzen da surfaz.

Zetazeoak begiztatzea

Bizkaiko Golkoa inguru ezin hobea da zetazeoak lehorretik hur-hur ikusteko.

Izurde handiak, kaxaloteak, orkak eta Cuvierreko zifioak, dira gure itsasaldera etortzen zaizkigun zetazeoetako batzuk.

Behatoki berezia: Matxitxako lurmuturra.

Ur eta kirol jarduerak

Busturialdea-Urdaibaik hainbat aukera eskaintzen dizkigu ur jardueraz eta ur kirolez gozatzeko, piraguismoa edo urpekaritza besteak beste.

GUDARI CARIBE SURF
Surf eskola.
Mundaka
Tel.: 627 889 331
www.gudaricaribe.com
contacto@gudaricaribe.com

LAGA SURF CAMP
Surf eskola eta kanpamendua.
Laga-Ibarrangelu
Tel.: 667 737 397 / 94 627 63 16
www.lagasurfcamp.com

LAIDA KANOAK
Kanoa, kayak eta paddle surf alokairua.
Laida-Ibarrangelu
Tel.: 94 627 65 15
www.laidakanoak.com
info@laidakanoak.com

HEGALUZE
Txango turistikoak itsasontsiz. Zetazeo begiztaketa.
Bermeo Tel.: 666 791 021
www.hegaluze.com
info@hegaluze.com

IZKIRA URDAIBAI
Laida, Mundaka eta Sukarrieta arteko bidaiarien garraio erregularra. Itsasbidai turistikoak.
Mundaka
Tel.: 633 331 230
izkira.urdaibai@gmail.com

MATXITXAKO NAUTIKA
Belaontzi-alokairua, patroi edo patroi gabe.
Bermeo
Tel.: 678 844 128
www.matxitxako.net
info@matxitxako.net

MUNDAKA BARRA SURF
Surf eskola.
Mundaka
Tel.: 688 683 144
www.mundakabarrasurf.com
info@mundakabarrasurf.com

MUNDAKA SURF SHOP
Surf eskola eta ekipo alokairua.
Mundaka
Tel.: 94 617 72 29
www.mundakasurfshop.com
info@mundakasurfshop.com

TXOF
Urpekaritza ikastaroak eta urperatzeak.
Bermeo
Tel.: 94 427 77 59 / 656 70 52 26

URDAIBAI BELA ESKOLA
Bela eskola.
Sukarrieta
info@urdaibaibelaeskola.com
www.urdaibaibelaeskola.com

URDAIBAI KIROLEROAK
Turismo eta abentura jarduerak. Kayak, patinak, eskalada, bizikleta alokairua eta bestelakoak.
Bermeo Tel.: 699 761 736
www.urdaibaikiroleroak.com
urdaibaikiroleroak@hotmail.com

URDAIBAI BOAT
Txango turistikoak itsasontziz Urdaibaitik.
Mundaka Tel.: 688 771 771
urdaibaiboat@gmail.com

URDAIBAI ON
Txango turistiko-kulturalak itsasontziz, itsasadarretik.
Mundaka Tel.: 626 859 477
www.urdaibaion.com
urdaibaion@urdaibaion.com

UR RIDERS
SUP eskola.
Bermeo
Tel.: 608 392 525 / 639 235 800

UR URDAIBAI
Kanoa jaitsiera, kayak kurtsoak eta alokairua, stand up paddle, surf-a eta coasteering-a.
Laida-Ibarrangelu
Tel.: 94 627 66 61 / 688 635 190
www.urdaibai.com
info@urdaibai.com

Gastronomia eta Enoturismoa

Busturialdea-Urdaibain landa eremuak eta itsasoak bat egiten dute. Horren isla, bertako gastronomia apartean dugu.

Gernikako indabaren ohiko zaporeaz gozatu, goilaraz. Jatorrizko deitura du.

Gernikako piper berdea, bene-benetako gutizia, samurra eta gozoa.

Geure arrantzaleek kontu handiz *arrantzatzen* duten **Kantauri itsasoko antxoa** estimatua, freskoan zein kontserban jan, beti aparta.

Hegaluzea dastatzea gozamena da, udan batez ere, arrantza berritan edota urte osoan, bertako kontserbetan.

Geure **txakolinen** maila eta bikaintasunak, sektorean buru diren upeltegiekin, berezko zaporea eskaintzen du edozeinen gozamenerako, zorrotzenarentzat ere bai.

Arrainak, haragiak, barazkaiak, txakolina, gaztak... Lurretik eta itsasotik ahalik eta produktu hoberenak ateratzeko geure baserritarren eta arrantzaleen ahaleginaren fruitu dira.

Sukaldaritzako kultura tradizionala eta kalitate goreneko produktu naturalek gastronomia aukera ugariko menu zabala eskaintzeko batzen dira eta ondo jatea gustatzen zaion edonoren paradisu bihurtu dute eskualdea.

Ohiko zaporeak, etxeko sukaldaritza, plater berritzaileak, maitasunez eta kalitaterik oneneko produktuez eginak.

Jarduera enoturistikoak

Bermeo Tuna Pintxo Tour
Bermeo Tuna World Capital

50 tabernetan atunarekin gozatzeko aukera Bermeon, atunaren nazioarteko hiriburuan (udan bakarrik).

— Bisita + dastaketa kontserbera baten.
— Bisita + dastaketa arrantzale kofradian.

Informazio gehiago: Bermeoko turismo bulegoan.

BERROJA UPELTEGIA

Txakolina, Natura eta Paisaia.
Jarduera enoturistikoak eta ekimenak.
Ajurias, Zugaztieta - Bizkaiko begiratokia errepidea.
Berroja auzoa.
48392 Muxika
Tel: 94 410 62 54 / 670 915 657
www.bodegaberroja.com
txakoli@bodegaberroja.com

TALLERI UPELTEGIA

Bisita enoturistikoak txakolinaren tradizioa eta txakoligintza ezagutzeko.
Erroteta Auzoa, s/n
48115 Morga
Tel.: 94 465 16 89 / 637 737 540
www.bodegatalleri.com
info@bodegatalleri.com

REMENETXE UPELTEGI JATETXEA

Euskal Herriko eta munduko ardoen dastaketak Jon Andoni Rementeria, Espainiako Ardo Dastatzaileen txapeldunaren zuzendaritzapean.
Ugarte Auzoa, 5
48392 Muxika
Tel.: 94 625 35 20
www.remenetxe.com
remenetxe@remenetxe.com

AMUNATEGI UPELTEGIA

Bisita gidatuak. Txakolingintza eta ondare enologikoa berreskuratzea.
San Bartolomé, 57
48350 Busturia
Tel: 685 737 398
www.amunategi.eu
info@amunategi.eu

ITSASMENDI UPELTEGIA

Ezagutu ezazu txakolinaren xarma dibertsitate naturaletik.
Arane Auzoa, 3
48300 Gernika
Tel.: 94 627 03 16
www.bodegasitsasmendi.com
info@bodegasitsasmendi.com

MERRUTXU UPELTEGIA

Ostatua eta jarduera enologikoak upeltegian.
Merru 15
48311 Ibarrangelu
Tel.: 94 627 64 35 / 626 86 03 95
www.casaruralpaisvasco.net
info@merrutxu.com

Esperientzia Enogastronomikoak

Murgildu zaitez txakolinaren munduan Busturialdea-Urdaibaiko upeltegien bitartez. Bertako produktuen elkarketak eta ohiko prozesu gastronomikoak ezagutu, pintxoak eta arrain kontserbak hurrenez hurren.

GEURE TXAKOLINAREN MUNDUAN MURGILTZEN

Remenetxe jatetxea
Tel.: 94 625 35 20
www.remenetxe.com
remenetxe@remenetxe.com

MILAKA URTEKO ARDOAREN HISTORIA ZORAGARRIA

Itsasmendi Upeltegia
Tel.: 94 627 03 16
www.bodegasitsasmendi.com
info@bodegasitsasmendi.com

TXAKOLINA, NATURA ETA PAISAIA. ESPERIENTZIA GASTRONOMIKOA

Upategitik Urdaibai Biosfera Errreserba osoa ikusteko begiratoki ezinhobea.

Berroja Upeltegia
Tel.: 94 410 62 54 / 670 915 657
www.bodegaberroja.com
txakoli@bodegaberroja.com

MURGIL ZAITEZ TXAKOLINAREN MUNDUAN

Talleri Upeltegia
Tel.: 94 465 16 89 / 637 73 75 40
www.bodegatalleri.com
info@bodegatalleri.com

ESPERIENTZIA MULTISENTSORIALA

Zallo Kontserbak
Tel.: 94 618 63 18
www.zallo.com
alega@zallo.com

Konserberak

Conservas Serrats
Landabaso industria gunea 3B, Bermeo
www.serrats.com

Anchoas de Bermeo- Royo
Erroxape Kaia 2, Bermeo
www.pescadosberober.com

Urdaibai Kontserbak
Erroxape Kaia, 5 Bermeo
www.conservasurdaibai.com

Ceberbi - Toja
Erroxape Kaia, 8 Bermeo
www.karmelotoja.com

Conservas Zallo
Landabaso industria gunea zg, Bermeo
www.zallo.com

Salica S.A.
Landabaso industria gunea, Bermeo
www.clubcampos.com

La Gaviota - Arroyabe
Landabaso industria gunea 2, Bermeo
www.arroyabe.es

Cusumano
Lamiaran industria gunea
Aranburu, Mundaka
www.cusumano.es

Conservas Isabel
Lamiaran industria gunea
Aranburu, Mundaka
www.garavilla.es

Bilbao 35 Km
Aeroportua 27Km
Mabitxako lurmuturra
Gaztelugatxeko San Juan
Aritzabiu
Bermeo (Tala)
Almike
Bermeo
Sollube
Santa Katalina
Arrantzaleen museoa
Aita Gurka Bareoodia
Mundaka
Laidatxu
Bilbao 23 Km
Aeroportua 16 Km
BI-631
Sukarrieta
Busturia
San Antonio
Murueta
Elexalde
Forua
Errigoiti
Gernika-Lumo
Euskal Herria museoa
Bakearen museoa
San Miguel Altamira
Morga
BI-635
BI-2121
Bilbao 26Km
Aeroportua 25Km
Muxika
Donostia-
San Sebastian 80km
Vitoria-Gasteiz 55km
1 Gaztelugatxeko San Juan
5 Bermeoko portua eta alde zaharra
2 Mundaka eta ezker olatua
6 Ekoetxea Urdaibai - Euskadiko biodibertsitate zentroa -
3 Batzar etxea eta Gernikako Arbola

URDAIBAI
Biosferaren Erreserba

Laida eta Laga hondartzak

9 Elantxobe

10 Ea

7 Urdaibai Bird Center

4 Omako basoa eta Santimamiñeko koba

Hegaztien behaketa-birding

Busturialdea-Urdaibaik ekosistema aberastasun handia du, batez ere padurak, Euskal Herriko hezegunerik nagusienak; horrek guztiak hegaztien behaketerako aparteko toki bihurtzen dute.

INTERPRETAZIO ZENTROA

Urdaibai Bird Center
Hegaztien aeroportu internazionala
Orueta 7
48314 (Gautegiz Arteaga)
Tel.: 94 625 11 57
urdaibai@birdcenter.org
www.birdcenter.org

BEHAKETA GUNEAK:

San Kristobal (Busturia), Orueta eta Ozolloko (Gautegiz Arteaga) behatokiak.
www.birdingeuskadi.com

Interpretazio Zentroak

Ingurumen eta jasangarritasun kultura sortzeko eta Euskadiko ondare natural zabala, Urdaibako ekosistemak eta euren kontserbazioaren garrantzia hain zuzen, ezagutzeko.

EKOETXEA URDAIBAI

Jasangarritasunaren inguruan egindako ekintzak eta erakusketak.

Torre Madariaga
San Bartolome Auzoa, 35
Tel.: 94 687 04 02
www.ekoetxea.eus
info@torremadariaga.org

BASONDO.
Fauna basati mehatxatuarentzako babeslekua.

Caserío Morgotaurre, 9
Basondo Auzoa (Kortezubi)
Tel.: 94 625 44 36

www.basondo.com
info@basondo.com

Begiratokiak

Busturialdea-Urdaibai, itsas mendien paisaia bakar eta izugarri bezain ederrak.

SANTA KATALINA

Mundaka

Mundaka itsasadarraren sarreran, bokala ikusten da. Inguruaren edertasunak aisialdigune bihurtu du.

SAN PEDRO ATXARRE

Ibarrangelu

Mundakako itsasadarraren ikuspegi paregabeaz gozatu eta Sukarrietako San Antonio, Mundakako Santa Katalina eta Ereñozarreko San Migel baselizak ikusten dira bertatik.

BIZKAIKO BEGIRATOKIA

Mendata

Oiz mendiaren magalean Urdaibaiko arroaren paisaiarik menditsuena dugu; geure basoen nagusitasunaz bete-betean gozatzeko.

ALTAMIRA

Morga

Edertasun handiko ikustokia, Ganbe bailara, Uribe eta Sollube mendia ikusiko ditugu bertatik. Ondoan San Migel baseliza dago.

EREÑOZAR

Ereño

Padura gainean dago, eta bertatik Gorbeia mendia eta itsasoa ikus daitezke. Antzinako nekropoliaren eta Erdi Aroko gaztelu baten (XI. mendea) aztarnak aurkitu dira bertan.

GAZTELUGATXEKO SAN JUAN

Bermeo

Biotopo babestua, erdigunetik 8 kilometrotara eta Matxitxakoko lurmuturretik 3 kilometrotara. Aparteko edertasuneko paisaia gailurrean baseliza duela.

Biosferaren ibilbidea

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren lau oinarrizko ekosistemak ezagutzeko ibilaldia.

ARTADI KANTAURIARRA

Urdaibairen ezaugarria.
Paisaia, fauna eta erabilerak definitzen ditu.

Behaketa gunea:

San Pedro Atxarre. Itsasadarraren eta artadiaren gaineko talaia paregabea dugu Atxarre mendia (312m) Ibarrangelu.

